

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala****Administrazio Orokorreko teknikariaren 28 plaza betetzeko hautaketa-prozesuko deialdiaren oinarriak.**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariaren 2018ko ekainaren 5eko Ebazpenari buruzkoa. Ebazpen horren bitartez, 645/2018 zenbakidun apelazio-errekurtsoa ontzat hartu eta bete egingo da eta Administrazio Orokorreko teknikariaren 28 plaza (horietako 18 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak) lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko hautaketa-prozesuaren deialdia egiten da.

Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak, Alkatearen 2015eko ekainaren 13ko Ebazpenaren bidez eta Gobernu Batzordeak 2015eko ekainaren 13an hartutako Erabakiaren bidez bere gain utzitako eskumenak erabilita, 2019ko ekainaren 5eko Ebazpena eman du hau xedatzeko:

«*Bat:* Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak 645/2018 zenbakidun apelazio-errekurtsoa jarri zuen Bilboko Administrazioarekiko Auzien 4. Epaitegiak emandako epaiaren aurka, 117/2018 zenbakidun prozedura laburtuan. Errekurtso horretako epaia bere horretan ontzat hartu eta bete egingo da, udalaren interesen aurkakoa izan arren. Izan ere, errekurtsoa onartzen du eta Administrazio Orokorreko teknikariaren 28 plaza (horietako 18 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak) betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu zituen eta hautaketa-prozesuaren deialdia egin zuen 2018ko urtarrilaren 19ko Ebazpena baliogabetzen du. Hortaz, "Lan-harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua" titulazioa hautaketa-prozesu horretan eskatzen den tituluen baliokideen artean dagoela ulertu behar da.

Bi: Epaia eman denean, hautaketa-prozesua bukatuta eta hautagaiak praktiketako funtzionario izendatzeko proposamena egiteko fasean dago. Hortaz, transakzio akordioa sinatu dute Bilboko Udaleko Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Saileko zinegotziak eta Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialeko presidentek 2019ko maiatzaren 30ean eta epaia honela beteko dela adostu dute:

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikulua, egintzak eta izapideak kontserbatzeari buruzkoa, betetzeko, hautaketa prozesuan egindako jarduketak kontserbatu egingo dira. Izan ere, jarduketa horien edukia ez litzateke aldatuko deialdia baliogabetzea ekarri duen arau-haustea ez balitz egin. Horrela aplikatuko dira administrazioaren jarduera arautzen duten eraginkortasun, ekitate, konfiantza legitimoa eta pro actione hastapenak.
2. Epaia betetzeko, administrazio orokorreko teknikariaren 28 plaza (horietako 18 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak, A taldeko ordainsariarekin eta 2016ko eta 2017ko Lan Eskaintza Publikoetakoak) karrerako funtzionarioekin jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuan, deialdi bat egingo da 2018ko martxoaren 17a baino lehen "Lan harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua" daukatenean prozesu horretan parte hartu ahal izan dezaten.
3. 2016ko eta 2017ko Lan Eskaintza Publikoetako Administrazio Orokorreko teknikariaren 28 plaza betetzeko 2018ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren bidez deitutako prozesuarekin lotzea deialdi hori.
4. Hautaketa-prozesuaren deialdi berriaren edukia (eranskinean dago) baliogabetutako deialdiaren eduki bera da eta ebazpen judizialak eragindako hautaketa-prozesuan eskariak aurkezteko epea bukatu zenean, 2018ko martxoaren 16an, "Lan harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua" zeukaten hautagaiak baino ezin izango dute bertan parte hartu.



5. Hautaketa-prozesu horretako epaimahaia, ebazteko epea eta zailtasun-maila jatorrizko deialdiarenaren antzekoak izango dira. Prozesua izapidetzen den bitartean, jatorrizko prozesuan hautatutakoak praktiketako funtzionario izendatzea kautelaz etengo da, segurtasun juridikoaren hastapena erabilita eta interesdunei kalterik ez eragiteko.
6. Epaia betetzeko deituko den hautaketa-prozesua bukatzen denean, prozedura biak uztartu egingo dira eta praktiketako funtzionario izendatuko dira, AOT plazak betetzeko, prozesu bietatik ateratzen den behin betiko kalifikaziorik onena lortzen duten 28 hautagaiak.

Hiru: Era berean, egindako prozesuko behin betiko kalifikazioen zerrenda AOT plazak behin-behinean betetzeko erabiliko da, bertako hurrenkeraren arabera, hautaketa-prozesu bien uztarketatik ateratzen den behin betiko kalifikazioen zerrenda egin arte.

Bilbon, 2019ko ekainaren 5ean.—Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Saileko Jarduneko Zinegotzi Ordezkaria

**ERANSKINA**

645/2018 zenbakidun apelazio-errekurtsoaren epaia eta Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Saileko zinegotzi ordezkariak 2019ko ekainaren 5ean emandako Ebazpena betetzeko, hauxe xedatu da:

Administrazio orokorreko teknikariaren 28 plaza (horietako 18 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak, A taldeko ordainsariarekin eta 2016 eta 2017ko Lan Eskaintza Publikoetakoak) karrerako funtzionarioekin jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuan, eta 645/2018 zenbakidun apelazio-errekurtsoaren epaia betetzeko, deialdi bat egingo da 2018ko martxoaren 17a baino lehen «Lan harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua» daukatenek prozesu horretan parte hartu ahal izan dezaten.

Deialdi hau eta 2018ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren bidez deitutako prozesua lotzea. Prozesu hori 2016ko eta 2017ko Lan Eskaintza Publikoetako AOT 28 plazak betetzeko zen, deialdia bukatuta eta izendapenak proposatzeko fasean dago, eta baliozko egintzak kontserbatzea xedatu da.

Deialdi berrian jatorrizko hautaketa-prozesuan eskariak aurkezteko epean «Lan harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua» zeukatenean baino ezin dute parte hartu. Deialdia ebazten denean, prozesu bietatik eratorritako behin betiko kalifikazioa bateratu eta onartuko da eta praktiketako funtzionario izendatuko dira azken kalifikazioan puntuaziorik onena daukaten 28 hautagaiak.

ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIAREN 28 PLAZA JABETZAN BETETZEKO
HAUTAKETA-PROZESUKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

Bat. — Deialdiaren helburua eta deitu diren plazak

Administrazio orokorreko teknikariaren 28 plaza (horietako 18 euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak, A taldeko ordainsariarekin eta 2016 eta 2017ko Lan Eskaintza Publikoetakoak) karrerako funtzionarioekin jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuan, eta 645/2018 zenbakidun apelazio-errekurtsoaren epaia betetzeko, deialdi bat egingo da 2018ko martxoaren 17a baino lehen «Lan harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua» daukatenek prozesu horretan parte hartu ahal izan dezaten.

Hortaz, bigarren deialdi honetako hautagaiak ariketa egokiak egin ondoren eta mehezimenduak baloratu ondoren, lehen eskainitako plazak betetzeko hautaketa-prozesua modu bateratuan ebatziko da.

Beraz, plazetatik 1 (euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizunekoak) elbarrien txandarako gorde da. Plaza hori betetzeko, baldintza hauek bete behar dira: %33ko edo horitik gorako elbarritasuna izatea, hautaketa-probak gainditzea eta, eskatzen zaienean, beren elbarritasun-maila egiaztatzea eta elbarritasun hori oztopo ez dela lanpostuko betebeharrak eta eginkizunak betetzeko. Plaza hori betetzen ez bada, txanda irekikoekin batuko dira.

BI. — Betebehar zehatzak

«Lan harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua» edukitzea 2018ko martxoaren 17a baino lehen, egun horretan bukatu baitzen AOT 28 plaza betetzeko deitu zen hautaketa prozesuko eskariak aurkezteko epea.

Oinarri Orokorretan ezarritako gainerako baldintzak betetzea (2016ko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 240 zk.).

Hiru. — Azterketa-eskubideak

6,00 eurokoak izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko lehenengo eskabide-orria bete behar da, webgune honetan: [www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza Publikoaren aplikaziorako sarbidea](http://www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza_Publikoaren_aplikaziorako_sarbidea). Era berean, barra-kodea duen eskabidearen edo ordainagiriaren kopia jaitsi eta dokumentu horretan adierazita dauden Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztuta ordaindu daitezke azterketa-eskubideak.

Azterketa-eskubideak beti ordaindu behar dira eskabideak aurkezteko epearen barruan.

**Lau. — Eskabideak**

Eskariak eredu ofizialean egin beharko dira. Eskari ofiziala helbide honetan lor daiteke: www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza Publikoaren aplikaziorako sarbidea.

Eskariak helbide elektroniko horretan ezarritako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztuko dira. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskarian adierazi beharko da, behar bezala eta zerrenda batean, baldintzak eta aurkeztutako merezimenduak betetzen direla. Ez da ziurtagiriaren kopiarik aurkeztu behar eskariarekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak eskatzen dutenean ziurtatu beharko dira parte hartzeko baldintzak eta aipatutako merezimenduak.

Era berean, Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak erregistroko bulego txiki bat jarriko du Aznar eraikinean (Venezuela plaza 2, 5. solairua), ordenagailuekin eta beste baliabide tekniko batzuekin, hala nahi dutenek eskaria aurkezteko erabil ditzaten. Era berean, interesdunei aholkuak emango zaizkie eskabidea behar bezala betetzeko

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, hogeita (20) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira balioduntzat joko.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeak esan nahi du baimena ematen dela hautaketa-prozesuaren edozein unetan Udalaren Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuko pertsonal sanitarioak beharrezkoa den gaitasun funtzionala ziurtatzeko egokitzat jotzen di-tuen kontrol edo azterketak egiteko.

Oinarri Orokorretako (2016ko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 240. zenbakian, argitaratutakoak) hamaikagarrena bertan araututako hautaketa-prozesuaren ondorengo lan-poltsak egiteari buruzkoa da. Oinarri horren ondorioetarako, hautagaiak eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko aurka dauden: Izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila. Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Aurkako iritzia ez bada beren-beregi ematen, baimena ematen dela ulertuko da.

Bost. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantilako plazak jabetzan betetzeko Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian bu-rua, idazkari bat eta gutxienez hiru kide izango dira. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta berezitasun printzipioan oinarritutakoa izango da; kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute eta hautaprobetako jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez. Epaimahaiaren osaera orekatua izan beharko da, eta sexu bakoitzaren ordezkaritza %40koa izango da gutxienez, hori egoki ez dela justifikatzen ez bada, behintzat.

Epaimahaian euskararen jakite-maila neurtzeko proba egiteko izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, bestelakorik adie-razi ezean.

Sei. — Hautaketa-prozedura

Hautagaiak lehiaketa-oposizioaren bidez eta txanda irekian aukeratuko dira. Oposi-zio-fasean lau ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratuko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko praktikaldia egingo da.

**A) Oposizioko fasea**

Oposizio-fasean lau ariketa egingo dira, lehenengo hirurak derrigorrezkoak eta baztertzailleak izango dira, eta laugarrena euskarazko 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea izango da. Ariketa hau derrigorrezkoa eta baztertzaillea izango da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna daukaten plazetarako; gainerako plazetarako borondatezkoa izango da eta ez da baztertzaillea izango.

Lehenengo ariketa

Idatziz garatu beharko da gai orokor bat. Gehienez ere ordu bi izango dira eta ariketa egin baino lehen epaimahaiak erabakiko du gaia. Deialdiaren eranskinean dagoen programarekin lotuta egongo da, epigrafe bera izan ez arren. Hautagaiak askatasuna izango dute azalpena egiteko.

Ariketa horretan hautagaiaren prestakuntza unibertsitario orokorra baloratuko da, ideien argitasuna eta antolamendua, idazteko erraztasuna, hautagaiaren ekarpen pertsonala eta laburpenak egiteko gaitasuna.

Hautagaiak ariketa hori irakurtzea erabaki ahal izango du epaimahaiak. Irakurketa hori publikoa izango da eta epaimahaiak adieraziko ditu egunak eta orduak.

Bigarren ariketa

Ahoz azaldu beharko dira lau gai, berrogei minutuan gehienez, deialdiaren eranskinean dagoen programatik ausaz aterako direnak: bat Administrazio Zuzenbide Orokorrekoa, bat Tokiko eta Foru Zuzenbide Administrazioa, bat Hirigintzako Zuzenbidekoa eta bat Finantza eta Zerga Zuzenbidekoa.

Ariketa hau publikoa izango da eta hautagaiak hamar minutu izango ditu gaien laburpena prestatzeko, ahoz azaltzen hasi aurretik.

Gaiei buruzko ezagutzak baloratuko dira. Lehen gai biak azaldu ondoren edo 20 minutu igaro direnean, epaimahaiak urritasun nabarmena ikusten badu hautagaiaren azalpenean, ariketa uzteko eskatu ahal izango dio.

Gai guztien azalpena bukatuta, epaimahaiak gai horien arloei buruz hitz egin ahal izango du hautagaiarekin, bai eta azalpen osagarriak eskatu ere. Elkarriketa hori 10 minutukoa izango da gehienez ere.

Hirugarren ariketa (praktikoa)

Idatziz egin beharko da, gehienez ere lau ordutan. Epaimahaiak azterketa hasi aurretik lanpostuko eginkizunekin edota eranskineko gai-zerrendako arloekin zerikusia daukaten gai bi aukeratzeko dituzte eta horiek ebazteko txosten bana idatzi beharko da.

Ariketa horretan, hautagaiak ekartzen dituzten lege-testuak, jurisprudentziako bildumak eta kontsultako liburuak (paperean) erabil ditzakete. Ezingo da inolako gailu edo euskarri elektronikorik erabili.

Ariketa horretan arrazoiketarako gaitasuna, planteamenduaren sistematika eta ondorioen formulazioa, eta aplikatu daitezkeen arauen ezagutza eta interpretazio egokia baloratuko dira, batez ere.

Laugarren azterketa (euskarazko proba)

Derrigorrezkoa eta baztertzaillea euskarazko derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna duten plaza kasuan. Gainerakoetan, ostera, borondatezkoa, eta ez da baztertzaillea izango.

Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakitako eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikulua.

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: IVA-Pen 3. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C-1 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenek (titulu eta egiaztagiri horiek apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 41. artikuluan eta azaroaren 9ko



297/2010 Dekretuko 3. artikuluan eta hurrengoetan daude zerrendatuta). Hori, baldin eta ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute, Alkatetza, Kontratazio eta Giza Baliabideen Zuzendaritzan ziurtagiria aurkeztuta; izan ere, ziurtagiria aurkeztu ezean, ez da salbuespen hori aplikatuko.

Hala ere, ziurtagiri hori ez da aurkeztu beharko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta dagoela agertzen denean Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Bilboko Udalari hori horrela dela egiaztatu dezan aipatutako erregistroan.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzen salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

IVAPk emandako 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edota euskararen ezagutza egiaztatzen duen tituluren bat dutenei, hain zuzen ere, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateria egokitzeko B-2 mailarekin baliokide den tituluren bat dutenei, ondoren adierazten den eran baloratuko zaie hizkuntza-maila. Hori, baldin eta ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute aurreko paragrafoetan azaldutako eran, bestela ez baitzaie baloratuko.

Lehenengo, bigarren eta hirugarren ariketak: derrigorrezkoak eta baztertzailak dira, 0,00tik 10,00 puntura kalifikatuko dira eta bakoitzean gutxienez 5,00 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Laugarren ariketa: euskarazkoa, gai ala ez gai kalifikatuko da derrigorrezko 3. hizkuntza-eskakizuna daukaten plazetarako. Gainerako plazetan 6,50 punturekin kalifikatuko da 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea eta 4,35 punturekin 2. hizkuntza-eskakizuna.

Gehieneko puntuazioa

Oposizio-fasean, euskarazko azterketa kontuan hartu gabe, gehienez 30,00 puntu atera ahal izango dira.

B) *Lehiaketaren fasea*

Oposizio-fasea amaitzen denean, fase hau gainditu duten hautagaiekin hasiko da lehiaketaren fasea. Behar bezala egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira; web orrian argitaratuko da merezimenduak aurkezteko epea. Oinarri hauetan azaldutakoarekin bat etorrira baloratuko dira merezimenduak. Ez da baloratuko bestelako merezimendurik. 2018ko otsailaren 16ra arte lortutako merezimenduak baino ez dira baloratuko, egun horretan argitaratu baitzen BOEn jatorrizko deialdia.

1. *Laneko esperientzia:* Administrazio Publikoan lanpostuari dagozkion eginkizunetan emandako denbora: gehienez 9,00 puntu, puntu 1,00 urteko edo 6 hilabeteko edo gorako zati bakoitzeko.
2. *Prestakuntza-ikastaroak:* gehienez 3 puntu.

Merezimendu hau, ikastaro presentzialei zein on line egindakoei dagokienez, honelaxe baloratuko da:

- A) Jasotako eskola-ordu bakoitzeko, prestakuntza-jarduera ebaluatzeko sistemaren bat dagoenean, prestakuntzako jardueraren aprobetxamendua lortzen denean edo gainditzen denean, ordu bakoitzeko: 0,025 puntu.
- B) Jasotako eskola-ordu bakoitzeko, prestakuntza-jarduera ebaluatzeko edo gainditzeko sistemarik ez dagoenean: 0,015 puntu.

Baldintza hauen arabera egingo da balorazio hori:

- 1) Prestakuntza-ikastaroek edo jarduerak plazaren funtzioekin eta gaiekin erlazionatuta egon behar dute eta gutxienez 10 orduko iraupena izan.
- 2) Honako hauek izango dira ikastaro horiek antolatu eta eman dituztenak, elkarlanean edo modu eskusiboan:
 - a) Administrazio Publikoa edo haren mendeko organismo autonomiaduna.



- b) Eskudun administrazioak onartuta balio akademiko ofiziala izan eta tituluak eman ditzaketen ikastegi publikoak edo pribatuak. Balorazioa titulu horien arlo akademikoko gaiei dagokiena soilik izango da.
 - c) Eskatutako titulazioari dagozkion lanbide elkargo ofizialak. Balorazioa horien lanbide-eremuaren barruko gaiei dagokiena soilik izango da.
- 3) Berdintasunaren, laneko arriskuen prebentzioaren eta aplikazio informatikoen arloetako prestakuntzaren balorazioan, lehen aipatutakoaz gain, muga hauek egongo dira:
- a) Aplikazio informatikoen arloko prestakuntzan (Word, Excel, Access, Outlook), maila edozein dela ere, gehienez ere 0,30 puntu lor daitezke.
 - b) Berdintasunaren arloko prestakuntza: gehienez ere 0,40 puntu.
 - c) Laneko arriskuen prebentzioaren prestakuntza: gehienez ere, 0,30 puntu.
- 4) Ikastaro guztiak behar bezala egiaztatu beharko dira, joan, aprobetxatu edo gainditu dela egiaztatzen duen agiriaren edo diplomaren bidez. Agiri horietan ikastaroak izan dituen eskola-orduak jaso beharko dira ezinbestez.
- 5) Gai berari buruzko ikastaro bat baino gehiago egin bada, azken ediziokoa bakarrik baloratuko da, salbu eta, aldaketa teknikoak edo arauetan egindako aldaketak tarteko, epaimahaiak beharrezkotzat jotzen duenean hura eguneratzea. Horrelakoetan, mailarik jasoeneko ikastaroa edo jarduera bakarrik hartuko da kontuan.
- 6) Ez dira baloratuko titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa-plan baten barruan dauden ikastaroak. Ikastaro horiek, titulu akademikoei buruzko 3. atalean adierazitako eran baloratuko dira.

Hortaz, ezin izango dira baloratu modu independentean aurreko paragrafoan aipatutako titulazio akademiko baten programaren barruko ikastaroak, jarduerak edo ikasgaiak.

3. *Gai-zerrendako gairen bati buruzko titulu akademikoak*, aurreko 2. puntuko 2. baldintzan adierazitako entitate edo erakunderen batek emandakoa bada, gehienez 0,75 puntu jasoko dituzte, honela zehaztuta:
- Doktore titulua edukitzea: 0,75 puntu.
 - Master titulua edukitzea: 0,50 puntu.
4. *Hizkuntzak*: Ondoren adierazitako Europar Batasuneko hizkuntzak jakitea, behar bezala egiaztatuta, hizkuntzok jakitea gehien komeni dela eta lortutako espezializazio oinarrituta eta Bilboko Udalak gehienbat dituen erakundeen arteko harremanak kontuan hartuta: frantsesa, ingelesa, alemana eta/edo italiara. Balio akademikoko tituluak emateko lege-gaitasuna duten hezkuntza eta irakaskuntza zentroek emandako agiri ofizialaren bidez egiaztatuko da. Merezimendu honekin, gehienez 0,75 puntu lortu daitezke, zehaztasun eta maila hauen arabera:
- Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko C1 maila edo goragoakoa: 0,50 puntu hizkuntza bakoitzeko.
 - Hizkuntzen Europako erreferentzi esparru bateratuko B2 maila: 0,25 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Hizkuntza jakitea merezimendu moduan baloratzeko, hizkuntza horren jakite-maila egiaztatzeko aurkezten diren tituluetan 4 hizkuntza trebeziak egongo dira jasota (ahozkoaren ulermena, idatzitakoaren ulermena, mintzamena eta idazmena).

Hizkuntza bera ezin da behin baino gehiagotan baloratu eta beraz, gorengo maila bakarrik hartuko da kontuan.



Lehiaketa-fasean lor daitezkeen puntuak, guztira, 13,50 izango dira, gehienez ere.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

Zazpi. — Oposizioko eta lehiaketako faseen behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketa edo/eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, lotuta dauden hautaketa-prozesu bietan lortutako emaitzetatik datorren behin betiko kalifikazioa bateratu eta onartuko du Epaimahaiak, eta hautatuen behin betiko zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa gainditu duten pertsonak lortutako puntuazioen baturak ezarriko du zerrenda horretako hurrenkera. Prozesu bien uztarketaren ondoren, pertsona horien kopurua ez da eskaintako 28 plazen kopurua baino handiagoa izango (Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 32. artikulua). Epaimahaiak Udalburuari bidaliko dio zerrenda hori eta izendapenerako proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Zerrenda honetan egoteak ez du beste inolako eskubiderik ematen, ez eta lanpostuaz jabetzekoa ere, Oinarri Orokorretako Hamargarren Oinarrian ezarritakoarekin bat etorrita.

Zortzi. — Agiriak aurkeztea

Oinarri Orokorren hamabigarrenean ezarritakoren arabera egingo da.

Bederatzi. — Praktika aldia eta izendapena

Hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da praktika aldia. Bertan izango dira Lehiaketa-Oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten hautagaiak; plazak bezain beste hautagai izango dira. Fase hori plaza bete behar den sailean egingo da, gehienez ere sei hilabetez. Datak sasoiz iragarriko dira.

Ebaluazioko prozedura jarraitua izango da praktikaldian. Aldi horretan, hamabost egun natural baino gehiagoko absentzia justifikatuak daudenean, egun solteetan edo jarraian, ebaluazioa eten egingo da. Kasu horretan, interesdunak aldi osoa bete beharko du.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen Erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaie funtzionarioei aplikatzen zaien Gizarte Segurantzako araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen-dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktika aldian deskalifikatu arte.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak etengabe ebaluatuko dira praktika aldian.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da eta beharrezkoa izango da gai kalifikazioa lortzea hautaketa-prozedurako fase hau gainditzeko.

Praktika aldia amaituta, Saileko zuzendariak hautagai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du eta bere ustez behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez adieraziko du. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaizkio, eta horrek, txostenok aztertutik, praktiketako fasea gainditu duten ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio alkate udalburuari.

Hautagaien izendapena praktika aldiko edozein unetan utzi daiteke bertan behera, betiere hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta horrek, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkate udalburuari.

**Hamar. — *Behin betiko izendapena***

Behin betiko kalifikazioa eta hautagaien lehentasun-ordena ateratzeko, oposizio-aldi-ko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapenak hautagaiei jakinaraziko zaizkie eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko dira.

Hamaika. — *Lanpostuaz jabetzea*

Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetuko dira eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, hogeita hamar eguneko epea daukate, izendapena jakinarazi zaien egunaren biharamunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da, bazter utziko dira eta bere eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, udalburuak proposatuko du, betiere oposizioko ariketak gaindituta, ariketen eta merezimenduen faseetako puntuak batuta baloraziorik onenak lortzen dituzten hautagaiak izendatzea, kargu uztearen ondorioz deitutako lanpostu kopuruan tokia izanik. Hori guztiori oinarri hauetako zazpigarrenean adierazitakoa-ekin bat etorrira.

Hamabi. — *Aurka egiteko bideak*

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal da hilabeteko epean Udalbatzaren aurrean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita zenbatuko da.

**ERANSKINA. GAIAK**

LEHENENGO ZATIA

ZUZENBIDE POLITIKO ETA KONSTITUZIONALA

1. Estatuaren teoria. Estatuaren helburuak, osagaiak eta funtzioak. Estatu-motak eta gobernu-motak. Alderdi politikoak.
2. Konstituzioa: kontzeptua, izaera eta motak. Espainiako 1978ko Konstituzioa: egitura eta ezaugarri nagusiak. Botereen banaketa. Koroa Konstituzioan.
3. Espainiako 1978ko Konstituzioan jasotako funtsezko eskubideak eta betebeharrak. Bere bermeak eta etendura. Hura babestea. Ohorerako, norbanakoaren eta familieren intimitaterako eta norbere irudirako eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa.
4. Gorte Nagusiak. Herriaren defendatzaileak. Arartekoa.
5. Gobernua. Gobernuaren eta botere legegilearen arteko harremanak.
6. Botere judiziala. Justizia Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Justizia Auzitegi Gorena: antolaketa, eremua eta osaera.
7. Auzitegi Konstituzionala. Urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoa. Eskumenak eta funtzioak. Konstituziokontraotasun eta babes-errekurtsoak, aginpide-gatazkak eta konstituziokontraotasun-arazoa. Tokiko autonomiaren defentsaren auziak.
8. Estatuaren lurralde-antolamendua. Autonomia estatutuak: esanahia. Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Aurrekari historikoak. Indarrean dagoen Estatutua: egitura. Estatutuaren erreforma: a) Konstituzioaren arabera b) Euskal Estatutuaren arabera. Prozedura arrunta eta prozedura bereziak.
9. Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumenen banaketa. Nola banatzen diren eskumenak Konstituzioan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren autonomia-estatutuan.
10. Eusko Legebiltzarra: Osaketa eta funtzionamendua. Lege autonomikoak. Lege-dekretuak eta legegintzako dekretuak. Legeak egiteko prozesua. Legegintzako ekimena. Legegintzako ahalmenaren mugak.
11. Eusko Jaurlaritza. Ekainaren 30eko 7/1981 Legea. Lehendakaria. Izendapena eta eskumenak. Bere estatutu pertsonala. Eusko Jaurlaritza: Osaketa, eskumenak eta funtzionamendua. Sailburuak. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.
12. Organo autonomikoen jardueraren kontrola: indarrean dauden arauak. Legeen kontrola. Administrazioaren kontrola. Arbitraje Batzordea.
13. Euskara Estatutuan. Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabilpena arautzen duena, eta Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 Epaia, ekainaren 26koa. Hizkuntza-eskakizunen azterketa berezia: araubide juridikoa eta horren aplikazioa.
14. Genero politikak. Emakumearen sustapena. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea. Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Aukera Berdintasunerako Bilboko Udalaren IV. Plana.
15. Europar Batasuna: sorrera eta bilakaera. Batasuneko erakundeak, antolaketa eta eskumenak. Eskualdeetako Lantaldea. Batasun ekonomiko eta monetarioa.
16. Batasuneko ordenamendua. Sorrera eta izaerak. Itunak eta zuzenbide eratorria. Batasuneko zuzentarauak eta arautegiak. Batasuneko zuzenbidea eta kide diren herrialdeen zuzenbidea. Batasuneko zuzenbidea eta autonomia erkidegoak. Tokiko Autonomiaren Europako Gutuna (1985eko urriaren 15a). Edukia. Iturrien sisteman daukan lekua eta esanahia.
17. Laneko arriskuen prebentzioa: Lan Arriskuen Prebentziorako azaroaren 8ko 31/1995 Legea eta Prebentzio Zerbitzuen Araudia, 39/97 ED.



18. Datu pertsonalen babesa. Datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa. Titulartasun publikoa duten datu pertsonalen fitxategiei buruzko eta datuak babesteko euskal agentzia sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legea.

19. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa esku-ratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Gobernu irekia, gardentasuna, datu irekiak eta herritarren partaidetza Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean.

BIGARREN ZATIA**ADMINISTRAZIO ZUZENBIDE OROKORRA**

20. Administrazioa legearen eta zuzenbidearen menpe egotea. Zuzenbide publi-koaren iturriak. Legea: lege motak.

21. Araudia: Kontzeptua eta motak. Egiteko prozedura. Erregelamendu-ahalmena-ren mugak eta legez kanpoko erregelamenduen aurkako defentsa. Zerbitzuko jarraibi-deak eta aginduak.

22. Ohitura. Administrazioaren jarduna. Zuzenbidearen oinarri nagusiak. Beste itu-rri batzuk.

23. Administrazio publikoaren jarrera juridikoa. Administrazioaren ahalmenak. Zuhurtziazko ahalmena eta ahalmen arautua.

24. Administratua. Kontzeptua eta motak. Administratuaren ahalmena eta arrazoi aldatzaileak. Herritarren lankidetzeta eta parte-hartzea Administrazioan.

25. Administrazio-egintza. Kontzeptua. Administrazio-egintzen motak. Administra-zio-egintzaren elementuak.

26. Administrazio-prozedura. Aurrekari historikoak. 39/2015 Legearen berrikuntza nagusiak.

27. Prozeduraren denborazko dimentsioak. Agiriak jasotzea eta erregistratzea (Erre-gistro elektronikoa). Interesduna eta ordezkartza. Komunikazioak eta jakinarazpenak.

28. Administrazio-prozedura erkidearen faseak. Administrazioaren isiltasuna.

29. Administrazio-egintzen eraginkortasuna eta baldintzak. Betearazpena eta eten-dura. Administrazio-egintzak betearaztea.

30. Administrazio-egintzen baliogabetasunaren teoria. Egintza deusezak eta deu-seztagarriak. Administrazio-egintza baliozkotzea. Administrazioaren kabuz berrikustea.

31. Administrazio-errekurtsoak: Kontzeptua. Printzipio orokorrak eta motak. Araubi-de juridikoa. Administrazio-errekurtsoen ordezkotza: kontziliazioa, bitartekartza eta arbitrajea.

32. Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Bere erregulazioa tokiko adminis-trazioan.

33. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Erregulazioa. Aldeak. Aurka egin daitez-keen egintzak. Prozedura orokorra. Epaia eta epaiaren betearazpena. Prozedura bereziak.

34. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea: Esparru objektiboa eta esparru subjektiboa. Administrazio-kontratuak eta kontratu pribatuak.

35. Kontratuko alderdiak. Kontratazio-organoa, esparru lokalean dituen eskume-nak, kontratazio-mahaia eta kontratugilearen profila. Enpresaburuak kontratatze-ko dituen ahalmena, kaudimena eta debekuak.

36. Administrazio publikoen kontratuak prestatzeko eta adjudikatze-ko arau oro-koak. Kontratazioaren arloko errekurtsotza berezia.

37. Administrazio-egintzaren motak. Sustapena eta horretarako baliabideak. Di-ru-laguntzen azterketa berezia.

38. Administrazio-polizia. Kontzeptuaren bilakaera. Poliziaren boterea eta horren mugak. Poliziaren baliabideak.



39. Administrazio publikoen zigortzeko ahalmenaren printzipioak. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek zigortzeko duten ahalmena. Toki erakundeen zigortzeko ahalmena.
40. Zerbitzu publikoa. Kontzeptuaren bilakaera. Zerbitzu publikoa eta administrazioaren prestazioak. Zerbitzu publikoa kudeatzeko moduak.
41. Jabetza nahitaez kentzea. Kontzeptua, elementuak eta izaera juridikoa. Prozedura orokorra. Premiazko prozedura. Erreferentzia gainerako prozedura bereziei. Berme juridikionalak. Desjabetutako ondasuna itzultzea.
42. Jabetza publikoak: tipologia. Jabari publikoa: kontzeptua, izaera eta elementuak. Jabari publikoko afektazioa eta mutazioak. Jabari publikoaren araubide juridikoa. Erabilera: Erreserba eta emakida.
43. Administrazio publikoen ondare pribatua. Araubide juridikoa. Administrazioaren ahalmenak eta eskuratu, erabili eta besterentzeko araubidea.
44. Administrazioaren erantzukizuna. Bilakaera eta gaur egungo araubidea. Ordain daitezkeen kalteak. Administrazioaren ekintza eta prozedura, erantzukizunari dagokionez.
45. Funtzionario publikoak. Kontzeptua eta motak. Funtzio publikoaren egitura. Langile publikoei buruzko estatuko eta autonomia erkidegoko legeak.
46. Euskal Funtzio Publikoaren Legea. Edukiaren eta bilakaeraren ideia orokorra.
47. Funtzionario-harremana sortzea eta bukatzea. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Eskubide ekonomikoak.
48. Funtzionarioen diziplina-araubidea. Langile publikoen erantzukizun zibila eta penala.
49. Estatuko administrazioaren antolaketa. Organo nagusiak. Estatuko Kontseilua. Organo periferikoak.
50. Antolaketa administratiboa. Antolatzeko ahalmena. Organo administratiboak. Kontzeptua eta motak. Kide anitzeko organoen garrantzi berezia.
51. Antolaketa administratiboaren printzipioak. Eskumena, hierarkia eta koordinazioa. Deszentralizazioa. Autonomia eta tutoretza.

HIRUGARREN ZATIA**TOKIKO ETA FORU ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOA**

52. Tokiko araubidea: printzipio konstituzionalak. Tokiko autonomia eta tutoretza. Estatuko oinarrizko legeak eta araubidezko garapena.
53. Probintzia tokiko araubidean. Probintziaren erregulazio konstituzionala. Antolaketa eta eskumenak.
54. Lurralde Historikoak. Aurrekariak. Konstituzioan eta Estatutuan inkardinatzea. Lurralde Historikoei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea. Egitura. Edukia eta oinarrizko printzipioak. Eskumenak transferitzea eta eskuordetzea.
55. Bizkaiko Lurralde Historikoaren foru antolaketa. Foru-organoak. Batzar Nagusiak: aukeraketa, antolaketa, funtzioak, osaketa eta funtzionamendua. Foru Aldundia: osaketa, eskurantzak eta funtzionamendua. Ahaldun Nagusia: izendapena, estatutu pertsonala eta kargua uztea. Foru diputatuak.
56. Tokiko hauteskunde sistema. Zinegotziak eta alkateak aukeratzea. Zentsura mozioa eta konfiantza arazoa tokiko esparruan. Hauteskunde-auzietako errekurtsioa. Tokiko korporazioetako hautetsien estatutua.
57. Udallerria. Historia. Toki-erakundeen motak Espainiako zuzenbidean.
58. Udal mugarteak. Udal biztanleak. Bizilagunen trataera berezia. Udalean errol-datzea.
59. Araubide komuneko udalerrien antolaketa. Araudi Organikoa.
60. Biztanle-kopuru handiko udalerrietako antolaketa.



61. Bilboko Udalaren antolaketa. Bere araudi organikoak.
62. Udalaren eskumenak: zehazte sistema. Berezko eskumenak, eskumen partekatuak eta eskuordetuak. Gutxieneko zerbitzuak. Zerbitzuak erreserbatzea.
63. Kide anitzeko organoen bileren erregimena eta akordioak.
64. Tokiko beste erakunde batzuk: Mankomunitateak, eskualdeak eta metropoli-areak. Udal enpresak. Partzuergoak.
65. Tokiko erakundeen ordenantzak eta araudiak. Motak. Horiek lantzeko eta onartzeko jardunbideak.
66. Tokiko erakundeetako langileak. Motak eta aplikatu daitezkeen arauak. Zuzendaritzako kideak.
67. Tokiko Funtzio Publikoa eta bere antolaketa. Araubide juridikoa. Hautaketa sistemak. Lanpostuen zerrenda.
68. Tokiko funtzionario publikoen eskubideak eta betebeharrak. Sindikatuzko eskubidea. Gizarte Segurantza.
69. Toki-erakundeen ondasunak. Kalifikazio juridikoa aldatzea. Administrazioaren prerrogatibak. Jabari publikoko ondasunak erabiltzeko araubidea. Ondasunen zerrenda.
70. Tokiko erakundeen jarduera motak. Administrazioak ekimen pribatuan esku-hartzea.
71. Lizentziak. Izaera juridikoa, araubide juridikoa eta emateko prozedura.
72. Zerbitzu publikoa tokiko esparruan. Kudeaketa moduak. Emakidaren trataera berezia.

LAUGARREN ZATIA**HIRIGINTZAKO ZUZENBIDEA**

73. Lurraldearen antolaketa. Horren erregulazioa Euskal Herrian. Lurraldea antolatzeko tresnak. Hirigintzaren arloko estatuko eta autonomia-erkidegoko arauak. Aurrekariak eta indarrean dauden arauak.
74. Hirigintzaren antolaketa administratiboa. Estatuaren eta autonomia-erkidegoen eskumenak. Lurralde Historikoen eskumenak. Udalaren eskumenak.
75. Lurzoruaren sailkapena: motak eta mailak. Kalifikazioa. Lurzoruaren jabetzaren erregimena.
76. Hirigintza antolaketa eta lurraldearen antolaketarekin daukan lotura. Hirigintza-ko planeamendua: Plan-motak eta tramitazioa. Hiri Antolaketarako Plan Orokorra. Planeamendu orokorraren bateragarritasuna. Sektorizazio planak.
77. Antolaketa xehakaturia. Plan bereziak. Plan partzialak. Beste baliabide batzuk (xehetasun-azterlanak, udal ordenantzak eta katalogoak).
78. Esku-hartze administratiboa lurzoruaren merkatuan. Lurzoruaren ondare publikoak. Udalaz gaineko esku-hartzea lurzoruaren merkatuan. Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea. Lurrazal eskubidea.
79. Obrak eta eraikinak zaintzea. Legezko aurri-egoera. Betearazpen-aginduak.
80. Hirigintzaren arloko legaltasuna kontrolatzeko mekanismoak. Hirigintza arloko legaltasunaren bermea eta babesia. Hirigintza-ikuskapena. Hirigintzaren arloko arau-haustekak eta zigorrak.
81. Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legea.

**BOSGARREN ZATIA****FINANTZA ETA ZERGA ZUZENBIDEA**

82. Zerga Zuzenbidea. Zerga Lege Orokorraren esanahia eta printzipio eragileak. Zergen arloko arau-haustek eta zigorrak.
83. Estatuan indarrean dagoen zerga sistema. Egituraren printzipioak. Zuzeneko eta zeharkako ezarpena.
84. Aurrekontua: kontzeptua, izaera eta motak. Aurrekontuaren araubide juridikoa. Tokiko aurrekontuak. Kontabilitatea eta kontuak.
85. Kontzertu Ekonomikoa. Aurrekariak. Printzipio nagusiak. Harmonizazio fiskalera arauak. Zerga itunduak. Kupoak: metodologia.
86. Tasak, prezio publikoak eta kontribuzio bereziak. Erreferentzia berezia tokiko arloari.
87. Tokiko ogasunak: diru-sarreraren sailkapena. Ordenantza fiskalak.
88. Ondasun higiezinaren gaineko zerga. Katastro-kudeaketa eta zerga-kudeaketa. Hiri-lurrek irabazitako balioaren zerga.
89. Ekonomi jardueren zerga. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen Zerga. Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga.
90. Tokiko entitateen eta euren menpeko erakundeen jarduera ekonomiko-finantzarioaren barruko kontrola. Kontu-hartzea: eremu subjektiboa, eremu objektiboa, modalitateak eta eragozpenak. Finantza kontrolak, eraginkortasuna eta eragingarritasuna.